

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsitako beste gai batzuk

Aipatzekoa da etxebizitzaren eskubide subjetoaren gaineko Foru Lege proposamenaren gaineko adostasuna

Asteazkena, 2018.eko azaroak 14

Gobernuak adostasuna erakutsi du etxebizitzaren eskubide subjetoaren gaineko Foru Lege proposamenaren gainean

Gobernuak gaurko bilkuran akordio bat onetsi du zeinaren arabera Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-AhalDugu-OrainBai eta Izquierda-Ezkerrako APFk (foru parlamentarien taldeak) talde parlamentarioek aurkeztutako etxebizitzaren eskubide subjetoaren gaineko Foru Lege proposamenaren gaineko adostasuna erakutsi duen.

Eskubide hori kenkari fiskalen sistema bat ezartzean zehazten da, non ematea eta ordainketa dagokion Departamentuan eskatu ahal izango den alde aurretik. Helburua gazteei etxebizitza lortzeko aukerak erraztea da, emantzipazioa bultzatuz, baita diru-sarrera baxuak dituzten pertsoneri ere.

Proposamenaren ere etxebizitzaren gizarte funtzioa zehaztuz bestelako berrikuntzak ere jaso dira, hala nola protekziozko etxebizitzak alokairu turistikora bideratzearen gaineko debekua, etxebizitzaren zaintza sustatzeko eraikinen balorazio txostenak egitea, edota zonalde erasanerrazten mapa sortzea etorkizunean politika publikoen gida moduan erabilgarria izan dadin.

Kontuen Ganberak IDECAL plataformara sarbidea izan dezan hitzarmen baten sinadura onartuta

Gobernuak gaurko bilkuran Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa Departamentuak eta Nafarroako Kontuen Ganberaren arteko lankidetzarako hitzarmena sinatzea onartu du, Ganberak zuzenean IDECAL plataformara sarbidea izan dezan.

IDECAL Nafarroako tokiko entitateek kontabilitateko espedienteak (aurrekontuak, luzatutako aurrekontuak, likidazioa eta kontuak) Toki Administrazioa zuzendaritza orokorrean aurkezteko erabiltzen duten tresna da.

NUPeKo Gizarte Kontseiluko bokala izendatzea

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran foru dekretu bat onartu du zeinaren bitartez Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko bokal izendatu duen Miguel José Arrarás, Hezkuntza Departamentuko ordezkari moduan.